



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko azaroaren 11

129. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernuia premiatzen da Erregistro Zibilar buruzko apirilaren 30eko 20/2011 Legearen 54. artikulua alda dezan. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak onetsia (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

—Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2021eko azaroaren 4an onetsitako erabakiak (27. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Erregistro Zibilari buruzko apirilaren 30eko 20/2011 Legearen 54. artikulua alda dezan.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak, 2021eko azaroaren 9an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Erregistro Zibilari buruzko apirilaren 30eko 20/2011 Legearen 54. artikulua alda dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Erregistro Zibilari buruzko apirilaren 30eko 20/2011 Legearen 54. artikulua alda

dezan, apirilaren 28ko 6/2021 Legeak emandako testuan, apartatu berri bat gehiturik, halako moldez non, genero-indarkeriaren biktimen edo haien ondorengo ahaide izanik beren gurasoek erailak direnen kasuan, abizen-aldaketa baimendu ahaliko baita orokortasunez ezarritako baldintzak bete behar izan gabe eta, kasu horietan, urgentzia-arrazoiengatik baimendu ahaliko baita erabateko nortasun-aldaketa, baldintza orokorrak bete behar izan gabe, erregelamenduz zehaztuko den prozedurari jarraikiz”.

Iruñean, 2021eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa. Galdera 2021eko irailaren 13ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00238), jakin nahi baitu zertan dagoen Lurralde Kohesiorako Departamentuaren hizkuntza plana, uztailaren 1eko 34/2020 Foru Agindua-ren bidez onetsia. Galderei erantzunez, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak, lehenengo eta behin, departamentuaren hizkuntza plana garatzeko beharrezkoak izan diren ekintza eta lan batzuen berri zehatza emanen du.

Plan hori ezarri ahal izateko, 4. puntuan (Antolamendu-egitura eta jarraipena) zehaztutako jarraibideei jarraitu diegu.

Horretarako, departamentuak zortzi teknikari eta departamentuaren hizkuntza planaren bost

arduradun izendatu ditu, eta beste bi pertsona, aldi berean teknikari eta arduradun direnak.

Lehenengo bilera bat egin zen plana aurkezteko, eta, gero, zenbait bilera tekniko ere egin ziren departamentuak eta Euskarabideak izendatutako pertsonen artean, planaren garapenari eta ezarpenari buruzko aholku- eta akonpainamendulanak egiteko.

Departamentuaren eta Euskarabidearen artean etengabeko lankidetzat dago plana inplementatzeko.

Horretaz gainera, azarorako departamentuaren batzorde teknikoaren bilera bat programatuta da.

Plana garatzeko, besteak beste honako unitate hauekin elkarlanean ari gara:

Departamentua (planaren arduradunak, koordinazio-teknikariak, idazkaritza teknikoak, kabine-tea)

Euskarabidea (Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua-Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua)

- Komunikazio Zerbitzua-Gobernuaren Eleduaren Bulegoa

- Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia

Lehen galderari erantzunez, honako hauek zehaztuko ditugu: hizkuntza planaren jarduketatutako, unitate arduraduna eta ezarritako helburuen betetze-egoera.

1. helburua: lehentasunezko unitate organikoetan hizkuntzaren derrigortasuna ezartzea

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Lehentasunezko unitateak identifikatzea, derrigortasunari dagokionez	Departamentua eta Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua (EAPGZ)	Egina
Plantilla Organikoan sartu beharreko lanpostu elebidunen kopuruari buruzko txosten-proposamena egitea	EAPGZ eta FPZN	Garatzen ari da
Balorazioa egin ondoren, txostena Funtzio Publikora igortzea, sindikatuekiko negoziazioa hasteko	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Proposamena negoziatzea Funtzio Publikoaren Negoziazio Mahaian	Departamentua, Euskarabidea eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia	Datozen hilabeteetan
Sindikatuakiko negoziazioaren ondoren, hizkuntza-eskakizuna esleitu beharrekoa duten lanpostuak zehaztea	Departamentua, EAPGZ eta FPZN	Datozen hilabeteetan
Hizkuntza-eskakizuna esleituta daukaten lanpostuei buruzko txosten teknikoak egitea	EAPGZ	Datozen hilabeteetan
Txosten teknikoak aztertu ondoren, behin betiko onestea Plantilla Organikoan hizkuntza-eskakizuna eduki beharreko lanpostuak	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Lanpostuen proposamena Funtzio Publikora igortzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan

Departamentuak, Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzuekin lankidetzan, derrigortasuna dela-eta lehentasunezkoak diren unitateak identifikatu ditu. Identifikazio hori egitean lehenetsi egin dira planean ageri ez ziren beste lehentasunezko unitate batzuk, eta plana aldatu egin da 2021eko martxoaren 5eko 17/2021 Foru Aginduaren bidez.

Ondoren, departamentuak lanpostuen proposamen bat egin du, identifikatutako lehentasunez-

ko unitateei dagokienez. Proposamen hori EAPGZra bidali da, aholkularitzarako eta lanpostuen egokitasuna egiaztatzeko.

Gero lanpostu-proposamenaren gaineko txosten teknikoa egin da eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari igorriko zaio berrikusteko.

Datozen hilabeteetan aurreikusita dago helburu horren jarduketa-ildo guztiak aurrera eramatea.

2. helburua. Lehentasunezko unitate organikoetara esleitutako departamentu-langileei euskarazko prestakuntza eskaintzea

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Prestakuntza Atalari hizkuntza-eskakizunen behin betiko proposamena igortzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atalari eskatzea Ikaskuntza eta Hobekuntza Plan bat taxutu dezan	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Hizkuntza-eskakizuna esleitu ez zaien langileen komunikazio-premiak aztertzea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Datozen hilabeteetan
Departamentuari ikaskuntza eta prestakuntza plan bat aurkeztea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Datozen hilabeteetan
Prestakuntza plana inplikaturako pertsonen beharren arabera egokitzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Plana onestea eta langileen prestakuntza hastea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Ikaskuntza eta prestakuntza gauzatzea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Datozen hilabeteetan

Helburu hau gauzatu ahal izateko, hizkuntza-eskakizunen proposamenak behin betikoa izan behar du. Lehen jarduketa-ildo hau garapenean dago, eta 2022ko lehen hilabeteetan gauzatuko da.

3. helburua. Behar diren neurriak hartzea, eskatzen duten pertsoneri arreta euskaraz eman dakien

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Hizkuntza-irizpideen gida bat idaztea, herritarrei arreta bi hizkuntzetan emateko	EAPGZ	Garatzen ari da
Jardute-protokolo bat zehaztea, arreta bi hizkuntzetan emateko hizkuntza-irizpideen gida aplikatzeko	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Gida nola jendearenganatuko den erabakitzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan

Euskarabidea aholku-zerrenda bat prestatzen ari da, lehen erantzun presentzial edo/eta telefonozkoa emateko. Departamentuak hori ezagutarazteko protokolo bat egiten du.

4. helburua. Herritarrei idatzizko informazioa (digitala eta paper bidezkoa) ele bitan ematea

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Itzulpen-beharren koordinazioaren eta idatzizko dokumentazioa analizatzearen ardura izanzen duten pertsonak/unitateak izendatzea	Departamentua	Garatzen ari da
Gabeziak eta hutsak identifikatu eta lehenbizi ezartzea	Departamentua eta EAPGZ	Egina, garatzen ari da
navarra.es atariaren arduradunarekin koordinatzea	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Egina, garatzen ari da
navarra.es-en ostatatuta ez dauden webekin lehenbizi ezartzea	Departamentua eta Itzulpen Zerbitzua	Egina
navarra.es-en ostatatuta ez dauden webetarako aurreikustea zein baldintza bete behar dituzten elebidunak izateko	Departamentua	Garatzen ari da
Departamentuaren aplikazioak direla-eta lehenbizi ezartzea, elebidunak izan daitezen	Departamentua eta Itzulpen Zerbitzua	Garatzen ari da
Inprimaki eta formulario elebidunak eskaintzea	Departamentua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Izapideen fitxak ele bitan argitaratzeko prozedura	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Izapide-fitxa guztiak ele bitan argitaratzea	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Gardentasunaren Atarian argitaratzen denaren zirkuitua zehaztea	Gardentasunaren Ataria eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Itzulpen-eskaerak egiteko jarraibideak egitea	Departamentua eta Itzulpen Atala	Egina

Departamentuak sistema berri bat jarri du, Euskarabideak diseinatua, itzulpenak eskatu eta kudeatzeko. Zerbitzu bakoitzeko pertsona bat edo gehiago izendatu dira, eta horiek izanen dira eskaerak egiteko baimena dutenak; halaber, departamentuaren eskaera guztien arduraduna izendatu da. Euskarabideak tresna informatiko bat eskuratu du, hura erabiltzeko jarraibideak eman ditu, eta eskatzaileei prestakuntza eman die.

Gardentasun Atarian argitaratzen denaren zirkuitua zehazteko garaian, lehenetasuna eman zaie aurreproiektuei eta foru lege eta foru dekretuen proiektuei. Horretarako, Gobernuaren Idazkaritzako eta Araugintzako Zerbitzuak komunikatutako prozedura bat badago.

Gaur egun, pandemiaren inpaktua dela eta, lehenetasuna eman zaio informazio digitalaren arloko jarduketak egiteari. Esparru horretan, Aurrerapen Digitalerako Zerbitzuak, hala eskatzen duten departamentuei, elebidunak izateko egokiak diren formatuetan eskaintzen dizkie webetarako eta aplikazioetarako euskarriak.

Kontuan hartuta lehenetasuna eman zaiela informazio digitalaren arloko ekintzei, bi eremutan jardun dugu batez ere: web orriak eta izapideak.

Departamentua lanean ari da navarra.es Atariaren Atalarekin eta Euskarabidearekin batera, navarra.es-en ostatatuta zerbitzuak eta izapideak eskaintzen dituzten web orri propioen eta gaikako weben diagnostikoa egiteko eta ele bitan egon daitezzen beharrezkoak diren ekintzak egiteko. Diagnostikoa egitean ikusi da departamentuak ez daukala web propiorik navarra.es ataritik kanpo ostatatuta.

Arlo horretan egindako ekintza guztiek erantzuten diote herritarrengan eragin handiagoa izatearen irizpideari.

1. Web orriak

1.1. Web orri propioak

Gaur egun, departamentuak ez du web orri propiorik.

1.2. Gaikako web orriak

Gaikako web orriak, izenak adierazten duen bezala, gaiei lotuta daude, eta ez departamentuei, zeren eta gaiak, orokorrean, egonkorak baitira eta departamentuak, berriz, legegintzalditik legegintzaldira alda baitaitezke. Esparru honetako lana, hala eta guztiz ere, departamentuekin egin da.

Gaikako weben kasuan, departamentua da edukiak sortzeko ardura duena, eta navarra.es

Atariaren Atala, berriz, haren kudeaketaz arduraz den unitatea da. Web horiek nahiko estatikoak dira, eta gaur egun berrikusiak, gaurkotuak eta formatu berriz jantziak izaten ari dira. Modu koordinatuan lan egiten ari da departamentuaren, navarra.es Atariaren Atalaren eta Euskarabidearen artean, gaikako web horiek hobetzeko lanak (azala, izapideak eta beste web eduki batzuk barne) egiten direnean, web orri elebidunak sor daitezzen.

Lurralde Kohesiorako Departamentuak gaikako weba partekatzen du Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikotako Departamentuarekin. Horren hizkuntza-egoera honako hau da:

♣ Lurraldea:

Gaikako web horretan, toki entitateen bilatzailea eta kartografia denda dira departamentuaren gaiak. Webeko orri nagusia ele bitan dago, baina departamentuari dagozkion atalak gaztelaniaz eta eguneratu gabe daude. Eguneratu gabe daudenez, departamentua elkarlanean ari da Euskarabidearekin eta Komunikazio Zerbitzu-Eledunaren Bulegoarekin, weba eguneratu eta aldi berean ele bitan jar dadin.

2. Izapideak

Izapideei dagokienez, ikusten ari da denboran egonkorak diren izapide batzuk badaudela, epe jakin batzuk badituztenak.

Lehenetasunak ezarri dira jarduketa-irizpideetan, izapideak elebidunak izan daitezzen, eta lanean hasi gara denboran egonkorak diren eta erabiltzaile gehiago dituzten izapideak ere prestatzeko.

Horretarako, izapideen, sarrera-kopuruaren eta izapide horiek editatzen dituzten pertsonen diagnostikoa egin da, eta, aurreko puntuan bezala, departamentuarekin, Euskarabidearekin eta navarra.es Atariaren Atalarekin lankidetzan ari gara.

Izapide egonkorren itzulpena egiteko protokolo bat taxutu da, eta izapide-editoreei prestakuntza ematen ari zaie, lan hori autonomiaz egin dezaten.

Lurralde Kohesiorako Departamentuaren kasuan, 20 izapide iraunkor identifikatu dira, hiru zuzendaritza nagusitan banatuak.

Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak hiru izapide ditu eta hirurak gaztelaniaz daude. Departamentuak, Euskarabidearekin elkarlanean, hirurak euskaratzeko prozesuari ekin dio, eta hurrengo asteetan bi hizkuntzetan egonen dira.

Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusian 14 izapide daude; horietako batzuk itzultzen ari dira eta laster amaituko da prozesua.

Azkenik, Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusian, gaur egun izapide guztiak ele bitan daude, departamentuak eta Euskarabideak batera egindako lanen ondoren.

5. helburua. Herritarrak artatzen diren espazio fisikoen errotulazioa eta informazio elebiduneko elementuak (bulegoak, arretaguneak ...): hizkuntza-paisaia.

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Fitxa bat sortzea jardun behar den tokietarako	EAPGZ	Egina
Fitxa osatzea jardun behar den tokietarako	Departamentua	Egina
Fitxa bat sortzea jardun behar den tokien diagnostikoa egiteko	EAPGZ	Egina
Diagnostikoa osatzea unitate bakoitzeko langileekin	Departamentua	Egina
Fitxa aztertzea proposamena egiteko	EAPGZ	Egina
Itzulpen Atalera bidaltzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Elementu berriak jartzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Lanpostuen identifikazioa diseinatzea	EAPGZ	Egina
Lanpostuak identifikatzea	Departamentua	Egina, garatzen ari da

Hizkuntza-paisaia

Errotulazio-txostena

Errotulazioaren gaineko txostena egin da, eta hizkuntza-paisaiari buruzko informazioa biltzeko erabili beharreko metodologia adostu dute Euskarabideko teknikariek eta departamentuko solaskideek. Horretarako, errotulazioaren argazkiak egin eta egoitza eta/edo lehentasunezko unitate bakoitzari dagozkion fitxak osatu dira. Horiek egiteko, aprobeztatu egin dira, kasu batzuetan, Euskarabideko teknikariek departamentuaren egoitzetara eginiko bisitak; eta, beste batzuetan, departamentuko pertsonak egin dituzte.

Txostena 2021eko ekainaren 17an aurkeztu zaio departamentuari.

Aipatu txostena egiteko, honako egoitza hauek aztertu dira:

- Departamentuaren egoitza nagusia
- Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren egoitza
- Eraikuntzako Segurtasunaren Bulegoaren egoitza
- Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuen egoitza
- Kontserbazio zentroak: Agoitz, Iruña, Irurtzun eta Oronoz-Mugairi

Txostenetik ateratako datu orokorrak honako hauek dira:

Departamentuaren egoitza nagusian kanpoaldeko errotuluak ele bitan daude eta barnealdeko gehienak gaztelaniaz, baina badira zenbait errotulu elebidun.

Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren egoitzan kanpoaldeko zein barnealdeko errotulazioa bi hizkuntzetan dago.

Kontrol eta Kalitate Laborategian, bai kanpoaldeko errotuluak bai barnealdekoak gaztelaniaz daude, paperean inprimatutako ohar batzuk izan ezik, horiek ele bitan baitaude.

Errepideak zaintzeko Agoizko, Irurtzungo eta Iruñeko zentroetan errotulu guztiak gaztelaniaz daude.

Errepideak zaintzeko Oronoz-Mugairiko zentroan errotulu guztiak ele bitan daude.

Proposamen hauek egin dira txostenean:

Proposatu da errotulu guztiak ele biko eredura aldatzea Kontrol eta Kalitate Laborategian eta Errepideak Zaintzeko Agoizko zentroan.

Proposatu da barnealdeko errotulazioa ele biko eredura aldatzea departamentuaren egoitza nagusian eta Errepideak Zaintzeko Iruñeko eta Irurtzungo zentroetan.

Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuak egoitzaz aldatu zain daude. Egoitzaz aldatzean errotuluak bi hizkuntzetan jartzea proposatu da.

Honako hauek dira egindako jarduketak eta egin beharrekoak:

Onartu dira San Ignazio etorbideko 3ko egoitzarako eta Garraioen Plangintzaren eta Araubide Juridikoaren Zerbitzurako egindako proposamenak. Lehen kasuan, bulegoak berrantolatzen ari dira eta aukera baliatuko da errotuluak ele biko eredura aldatzeko. Bigarren kasuan, egoitza aldatzeko obrak amaitu zain daude, eta egoitza berriko errotuluak ele biko eremuan eginen dira.

Gainerako proposamenak Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren egoitzetarako dira. Zuzendaritza nagusi horren politika da egoitzan zaharberritze lanen bat egiten denean errotulazioa aldatu, eta unean uneko lege indardunaren araberako errotuluak jartzea. Beraz, obrak egiten direnean gauzatuko dira proposamenak.

Identifikatzaileak, pinak

Euskarabideak pinak eta mahai gaineko identifikatzaileak sortu ditu, eta Departamentua hizkuntza-eskakizuna duten langileen eta eskatzen duten pertsonen artean horiek banatzen ari da, herritarrek jakin ahal izan dezaten zein unitate-tan ematen den zerbitzu elebiduna.

6. helburua. Zerbitzu publikoak adjudikatzeko hizkuntza-irizpideak ezartzea

Zerbitzu publiko horiek ematen dituzten enpre-sen diagnostiko bat egiten ari da. Heldu den urte-an garatuko da.

Bigarren galderari erantzunez, lehen helburuari buruz aurreko erantzunean adierazi den bezala, lanpostuen proposamenaren gaineko txosten tek-nikoa egin da.

Momentuz, ezin da lanpostuen proposamenari buruzko datu zehatzik eman, zeren eta Nafarroa-ko Foru Komunitateko Administrazio eta haren erakunde autonomoetako langile funtzionarioen eta estatutupekoen Negoziazio Mahai Orokorrean negoziazio kolektiboaren prozedura gauzatu behar baita, administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren zazpigarren xedapen gehigarriak ezartzen duen moduan. Prozesu hori datozen hilabeteetan egitea aurreikusi da.

Eman daitezkeen datuak plantillaren egungo egoerari buruzkoak dira. Departamentuak oinarriz-ko 171 lanpostu ditu guztira, eta horietatik bakarra ere ez da elebiduna.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Par-lamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 6an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

Galdera, Osasun Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasun Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa. Galdera 2021eko irailaren 13ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00239), jakin nahi baitu zertan dagoen Osasun Departamentuaren hizkuntza planaren garapena. Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak ematen duen informazioa:

Zertan dago Osasun Departamentuaren hizkuntza planaren garapena? Zein da departamentu honetan ezarritako sei helburuen baitan zehaztu diren jarduketa ildoetako bakoitza betetzeko epea?

1. HIZKUNTZA PLANA 2020-2022

Osasun Departamentuaren 2020-2022 aldirako hizkuntza plana Osasuneko kontseilariaren uztailaren 8ko 32/2020 Foru Aginduaren bidez onetsi zen. Planean jaso dira departamentuaren egiturari buruzko erreferentzia, lege esparrua eta datu demografikoak eta soziolinguistikoak. Abiapuntuaren egoeraren hasierako diagnostikoa egiten du (zenbat plazatan dagoen ezarrita euskararen ezagutza), langileen euskararen ezagutzari buruzko datuak ematen ditu, eta departamentuko komunikazio eta baliabideak aztertzen ditu.

Era berean, ezarritako aldira garatu beharko diren helburuak zehazten dira, hala nola:

- Langileen euskarazko prestakuntza.
- Herritarrei arreta euskaraz emateko neurriak
- Idatzizko informazio elebiduna
- Hizkuntza paisaia

– Lanpostu jakin batzuen hizkuntza eskakizuna ezartzea eta lizitatutako zerbitzuen arreta elebidunerako irizpideak.

– Plana garatzeko antolamendu-egitura, ekin-tzen balorazio ekonomikoa eta planaren ebaluazioa eta jarraipena finkatzen dira.

Hurrengo ataletan azalduko da zertan dagoen planaren garapena. Plana gauzatzeko epea 2022an amaituko da.

2. AURRETIAZKO LANAK

Osasun Departamentuan, batez ere Osasunbi-dea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan, 2018az geroztik hainbat jarduketa egin dira euskararen erabileraren egoera ezagutzeko eta hizkuntzaren arloko premiak detektatzeko. Horretarako honako txosten hauek egin dira:

- Hizkuntza-gaitasuna eta prestakuntza-beharrak eremu euskaldunetan eta Pirinioetan.
- Eremu euskalduneko eta Pirinioetako osasun zentroetako hizkuntza egoeraren diagnostikoa.
- Hizkuntza-gaitasuna eta prestakuntza-beharrak eremu mistoan: oinarrizko osasun laguntza, osasun mentala eta Nafarroako Ospitalegunea.
- Hizkuntza paisaia eremu mistoan: oinarrizko osasun laguntza, osasun mentala eta Nafarroako Ospitalegunea.

Diagnostiko hori inkesten, zentroetara egindako bisiten eta eztabaida taldeen bidez egin da.

3. 2020-2022 ALDIRAKO HIZKUNTZA PLANEKO JARDUKETA-ILDOAK**3.1 BEHARREZKO DEN HIZKUNTZA NAHITAEZKOTASUNA EZARTZEA LEHENTASUNEZKO UNITATE ORGANIKOETAN**

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Lehentasunezko unitateak identifikatzea derrigortasunari dagokionez	Departamentua eta EAPGZ (Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua)	Egina
Plantilla Organikoan sartu beharreko lanpostu elebidunen kopuruari buruzko txosten-proposamena egitea	EAPGZ eta FPZN (Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia)	Egina, eremu euskaldunerako
Balorazioa egin ondoren, txostena Funtzio Publikora igortzea, sindikatuekiko negoziazioa hasteko	Departamentua	Garatzen ari da
Proposamena negoziatzea Funtzio Publikoaren Negoziazio Mahaian	Departamentua, Euskarabidea eta FPZN	
Sindikatuakiko negoziazioaren ondoren, hizkuntza eskakizuna esleitu beharrekoa duten lanpostuak zehaztea	Departamentua, EAPGZ eta FPZN	
Hizkuntza eskakizuna esleitura daukaten lanpostuei buruzko txosten teknikoak egitea	EAPGZ	
Txosten teknikoak aztertu ondoren, behin betiko onestea Plantilla Organikoan hizkuntza-eskakizuna eduki beharreko lanpostuak	Departamentua	
Lanpostuen proposamena Funtzio Publikora igortzea	Departamentua	

Plaza elebidunen kopuruari buruzko txosten-proposamena egin da 2021eko ekainean, eremu euskalduneko eta Pirinioetako oinarrizko osasun laguntzako zentroetarako.

3.2 EUSKARAZKO PRESTAKUNTZA ESKAINTZEA LEHENTASUNEZKO UNITATE ORGANIKOEI ESLEITURIKO DEPARTAMENTUKO LANGILEEI

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Prestakuntza Atalari hizkuntza eskakizunen behin betiko proposamena igortzea	Departamentua	Garatzen ari da
Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atalari eskatzea Ikaskuntza eta Hobekuntza Plan bat taxutu dezan	Departamentua	
Hizkuntza eskakizuna esleitu ez zaien langileen komunikazio-premiak aztertzea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	
Departamentuari ikaskuntza eta prestakuntza plan bat aurkeztea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	
Prestakuntza plana inplikaturako pertsonen beharren arabera egokitzea	Departamentua	1/ Euskara ikastaroetan sartzeko irizpideak homogeneizatzea 2/ Ikastaro trinkoak zabaltzeko aukera berria 3/ Lanbide kategorietarako (administrazioa, erizaintza...) ikastaro tekniko espezifikoak eskaintzea 3/ Sustapenerako eta prestakuntzarako tresna berriak: a) BOST MINUTUKO IKASTAROA asteroko aldizkaria b) OSASUN BERRI hiru hilean behingo aldizkaria c) MOTIBALIUM PILULAK bi hilean behingo aldizkaria d) OSASUNBIDEAN EUSKARAZ atala, AUZOLAN intranetean
Plana onestea eta langileen prestakuntza hastea	Departamentua	
Ikaskuntza eta prestakuntza gauzatzea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Euskarabidearen ikastaro eskaintza

Kontuan izanik ez dela hizkuntza eskakizunen behin betiko proposamena egin, ekintzen helburua izan da egungo prestakuntza eskaintza indartzea:

1. Balorazio irizpideak homogeneousatu dira euskara ikastaro trinkoetan parte hartzeko garaian, lehentasunak ezarriz zuzeneko arretarako, euskarazko arretaren eskari handiagoko eremuetan ari direnentzat, eta tituluen lorpena erraztuz kasuan kasuko eskakizunaren arabera.

2. Euskarazko ikastaro trinko bat baino gehiago egiteko aukera berri bat ezarri da.

3. Ikastaroetan parte hartzea errazteko baliabide ekonomikoak indartu egin dira.

4. Euskarazko ikastaro teknikoak eskaini zaizkie talde espezifikoei: administrariei, erizainei.

Prestakuntza eskaintza osatzeko, abian jarri dira zenbait tresna digital, gutxieneko euskara

maila duten profesionalei zuzenduak, haien euskararen ezagutza maila hobetzeko, euskararen erabilera sustatzeko eta langileen gaikuntza teknikoan osasun arloko euskarazko edukiak erabiltzeko:

1. BOST MINUTUKO EUSKARA IKASTAROA hileroko aldizkaria

2. MOTIBALIUM PILULAK hileroko aldizkaria

3. OSASUN BERRI hiru hilean behingo aldizkaria

Azkenik, AUZOLAN intranetean OSASUNBI-DEAN EUSKARAZ izenburuko atala sortu da, eta hor jasotzen dira Osasunbideko profesional euskaldunen artikulatuak, komunikazioak eta osasun esperientziak, osasun arloko euskarazko liburute-gia eta askotariko baliabideak (hiztegiak, gramatikako irizpideak, etab.).

3.3. BEHARREZKO DIREN NEURRIAK HARTZEA EUSKARAZ ARTATZEKO HALA ESKATZEN DUTEN PERTSONAK

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Hizkuntza irizpideen gida bat idaztea, herritarrei arreta bi hizkuntzetan emateko	EAPGZ	Departamentuak eta EAPGZk elkarlanean irizpideak idaztea.
Jardute-protokolo bat zehaztea, arreta bi hizkuntzetan emateko hizkuntza irizpideen gida aplikatzeko	Departamentua	Eremu euskalduneko eta Pirinioetako oinarritzko osasun laguntzarako gomendioak idaztea.
Gida nola jendearenganatuko den erabakitzea	Departamentua	Eremu euskalduneko eta Pirinioetako oinarritzko osasun laguntzako zentroetan zabaltzea.

EAPGZ Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzuarekin lankidetzan, eremu euskalduneko eta Pirinioetako oinarritzko osasun laguntzan ahozko arreta euskaraz emateko gomendioak prestatu dira.

Gomendio horien berri zabaldu da, eta gogora ekartzen dira aldiaren behin, eta zenbait ekintza osagarri egin dira euskarazko arreta errazte aldera:

1. Langile elebidunen identifikatzaileen diseinua eta hedapena eremu euskalduneko, eremu mistoan (oinarritzko osasun laguntza eta osasun mentala) eta Nafarroako Ospitalegunean.

2. Pazienteak euskaraz artatzeko gida egitea, batez ere harrera eta abegi egiten duten langileentzat. Gaur egun bada lantalde bat erizaintzako gida egiteko, eta gida hori 2022an argitaratuko da.

3. Euskaraldia kanpainan parte hartzeko zabalkundea eta sustapena egitea, bereziki ahaleginduz eremu euskalduneko, Topaguneak-ekin lankidetzan.

4. Lesakako eta Doneztebeko osasun zentroetan ele biko artapena sustatzeko esperientzia pilotua (2020ko iraila-abendua).

5. Hizkuntzaren inguruko kexak jaso eta kudeatzea.

3.4 HERRITARREI ELE BIKO INFORMAZIO IDATZIA ESKAINTZEA (DIGITALA ETA PAPERKOA)

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Koordinazioaz arduratuko diren pertsonak/unitateak izendatzea, itzulpen premiei eta agiri idatzen azterketari dagokienez.	Departamentua	Egina, jarraipena egiten zaio eguneratzeko
Gabeziak eta hutsuneak identifikatzea eta lehentasunak ezartzea.	Departamentua eta EAPGZ	Egina
Koordinazioa navarra.es atariko arduradunarekin	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Egina
navarra.es-en ostatatuta ez dauden webekin lehentasunak ezartzea	Departamentua eta Itzulpen Zerbitzua	Egina
navarra.es atarian ostatatuko ez diren webguneek ele bikoak izateko zer baldintza bete beharko duten aurreikustea	Departamentua	
Departamentuaren aplikazioak direla-eta lehentasunak ezartzea, elebidunak izan daitezen	Departamentua eta Itzulpen Zerbitzua	Koordinazioa
Inprimaki eta formulario elebidunak eskaintzea	Departamentua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Izapideen fitxak ele bitan argitaratzeko prozedura	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Izapide-fitxa guztiak ele bitan argitaratzea	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Gardentasunaren Atarian argitaratzen denaren zirkuitua zehaztea	Gardentasunaren Ataria eta Itzulpen Atala	
Itzulpen-eskaerak egiteko jarraibideak egitea	Departamentua eta Itzulpen Atala	Egina

Honako jarduketa hauek egin dira:

1. Diagnostikoa egin da, EAPGZrekin batera, navarra.es atariko izapideen fitxen elebitasunari buruz. Ele bikoak ez diren dokumentu eta izapideen zerrenda egin da horiek euskaratzen joateko, gehien eskatzen diren eta herritarrei gehien eragiten dieten izapideak lehenetsiz.

2. Nafarroako Ospitaleguneko dokumentuak eta inprimakiak berrikusten ari dira, ele bitan aurkeztuko direla bermatzeko. Lan horretan, herritarren kexak eragin dituzten dokumentuen itzulpena lehenesten da.

3. ITZULPENFLOW bitartekoa ezarri da oinarriko osasun laguntzan, osasun mentalean, Nafarroako

ospitalegunean eta horien kudeatzailetzetan, bai eta NOPLOI Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuan ere, herritarrentzako dokumentu, web-eduki eta abarrekokoak itzultzeko beharrak errazago kudeatzeko. Horretarako, identifikatu egin dira pertsona arduradunak, eta bitartekoa erabiltzeko prestakuntza eman zaie (prestakuntza hori bai online bai aurrez aurre jaso dute).

4. Hizkuntzaren inguruko kexak jaso eta kudeatzea. Osasun Departamentuaren konplexutasuna kontuan izanda, herritarrek informazio idatzia ele bitan ez egoteagatik aurkeztu dituzten kexek zuzendu beharreko inprimaki, informazio eta euskarriak detektatzeko balio izan dute.

HERRITARRAK ARTATZEN DIREN ESPAZIO FISIKOEN ERROTULAZIOA ETA INFORMAZIO-ELEMENTU ELEBIDUNAK (BULEGOAK, ARRETAGUNEAK...): HIZKUNTZA PAISAIA

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Jardun behar den tokietarako fitxa sortzea.	EAPGZ	
Aurreko fitxa osatzea jardun behar den tokien zerrendarekin	Departamentua	Garatzen ari da
Fitxa bat sortzea jardun behar den tokien diagnostikoa egiteko	EAPGZ	
Diagnostikoa osatzea unitate bakoitzeko langileekin	Departamentua	Garatzen ari da
Fitxa aztertzea proposamena egiteko	EAPGZ	
Itzulpen Atalera bidaltzea	Departamentua	
Elementu berriak jartzea	Departamentua	
Lanpostuen identifikazioa diseinatzea	EAPGZ	Bai
Lanpostuak identifikatzea	Departamentua	Egiten ari da

Jarduketa-ildo honen tratamenduan bestelako metodologia erabiltzen ari da.

2019an hizkuntza paisaiaren diagnostikoa egin zen, zentroetara bisitak eginez eta errotulazioaren egoera erakusten zuten argazkiak bilduz.

Detektatu den gabezia nagusia errotulazio eta informazio ez-finkoari dagokio. Egoera hori zuzentzen saiatzeko, honako jarduketa hauek egin dira:

1. Itzulpenflow bitartekoa ezartzea, itzulpen beharrak errazago kudeatzeko.

2. Zerbitzuekin harremanetan aritzea, irizpideak eta laguntza eskainiz informazio euskarriak euskaratzeko eta bi hezkuntzetan egotea bermatzeko.

3. Pandemiaren ondorioz, informazio elementuen behar handia sortu da, eta presa handiz zabaldu edota ikusgai jarri beharreko elementuak izaten dira. Horrek eragotzi egin du ele biko informazioa kasu guztietan bermatzea, Itzulpen Atala buru belarri aritu arren. Denbora aurrera joan ahala egoera hori zuzentzen ahalegindu gara.

Zentro eta zerbitzu berrietako errotulazio finkoaren kasuan, bermatu egin da ele bikoia izatea.

Bestalde, mahai gaineko euskarriak diseinatu dira hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak identifikatzeko, eta orain banatzen ari dira.

3.5 ZERBITZU PUBLIKOAK ADJUDIKATZEKO HIZKUNTZA IRIZPIDEAK EZARTZEA

EAPGZ diagnostikoa egiten ari zaie zerbitzu publiko horiek ematen dituzten enpresei.

Aldi berean, EAPGZ hizkuntza irizpideak ezartzeko klausulen zerrenda prestatzen ari da.

4. ANTOLAMENDU-EGITURA ETA JARRAI-PENA

Departamentuaren hizkuntza planak baditu plana gauzatzeko arduradunak eta teknikari bat (aurreikusten ziren bien orde).

Badago lantalde bat, eta hor, departamentuko arduradun eta teknikariek gain, EAPGZko teknikariek parte hartzen dute.

Egin al da departamentuaren plantilla organikoan beharko liritekeen hizkuntza-eskakizunen zehaztapena? Hizkuntza plan berriaren arabera, zenbat lanpostutan ezarriko da profil elebiduna? Zein izanen da, guztira, departamentuan izanen diren lanpostu elebidunen portzentajea?

Departamentuan txosten-proposamena egin da eremu euskaldunean eta Pirinioetan hizkuntza eskakizuna izan behar duten lanpostuen kopuruari buruz, eta 56 lanpostu elebidun proposatu dira, Osasun Departamentuan lehendik daudenez gainera.

Departamentuak gaur egun baditu 174 lanpostu elebidun, eta, bestalde, euskararen ezagutzaren derrigortasuna eremu euskaldunean eta Pirinioetan 56 lanposturi esleitzea proposatu da. Beraz, lanpostu elebidunak 230 liriteke, guztira.

Lanpostu horiek honela banatuko liriteke: 141 lanpostu eremu euskaldunean (Pirinioak barne) eta 89 eremu mistoan. Lanpostu elebidunak departamentuko oinarritzko lanpostu guztien % 2,57 liriteke (% 36,64 eremu euskaldunean eta % 1,19 eremu mistoan).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa. Galdera 2021eko irailaren 13ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruz (10- 21/PES-00242). Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak ematen duen informazioa:

Egindako galderei erantzunez, hasteko, departamentuaren hizkuntza plana garatzearen egin behar izan diren ekintza eta lan batzuk zehaztuko ditugu.

Plan hori egiteko, 4. puntuan zehaztutako jarraibideei jarraitu diegu. Antolamenduaren eta jarraipenaren egitura. Horretarako, departamentuak teknikari bat eta departamentuaren hizkuntza planaren arduradun bat izendatu ditu.

Lehenengo bilera bat egin zen plana aurkezteko, eta, gero, zenbait bilera tekniko ere egin ziren

departamentuak izendatutako pertsonen eta Euskarabideak hautatutako artean, planaren garapenari eta ezarpenari buruzko aholku- eta akonpainamendu-lanak egiteko.

Departamentuaren eta Euskarabidearen artean etengabeko lankidetzak dago plana inplementatzeko. Horretaz gainera, azarorako departamentuarterteko batzorde teknikoaren bilera bat programatu da.

Departamentuaren hizkuntza planaren inplementazioan parte hartzen duten pertsonen prestakuntza jaso zuten 2020ko azaroaren 4an eta 5ean. Plana garatzeko, besteak beste honako unitate hauekin elkarlanean ari gara:

- Departamentua (planaren arduradunak, koordinazio-teknikariak, idazkaritza teknikoak, kabineak)
- Euskarabidea (Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua-Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua)
- Komunikazio Zerbitzua-Gobernuaren Eledunaren Bulegoa
- Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia

Lehen galdera: Zertan dago Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren hizkuntza planaren garapena? Zein da departamentu honetan ezarritako sei helburuen baitan zehaztu diren jarduketak izango diren bakoitzak betetzeko epea?

Galdera horri erantzunez, jarraian honako hauek zehaztuko ditugu: hizkuntza-planaren jarduketak izango diren arduraduna eta ezarritako helburuen betetze-egoera.

1. helburua.- Lehentasunezko unitate organikoetan beharrezko den hizkuntzaren derrigortasuna ezartzea

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Lehentasunezko unitateak identifikatzea, derrigortasunari dagokionez	Departamentua eta Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua (EAPGZ)	Egina
Plantilla Organikoan sartu beharreko lanpostu elebidunen kopuruari buruzko txosten-proposamena egitea	EAPGZ eta FPZN	Egina
Balorazioa egin ondoren, txostena Funtzio Publikora igortzea, sindikatuekiko negoziazioa hasteko	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Proposamena negoziatzea Funtzio Publikoaren Negoziazio Mahaian	Departamentua, Euskarabidea eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia	Datozen hilabeteetan
Sindikatuakiko negoziazioaren ondoren, hizkuntza-eskakizuna esleitu beharrekoa duten lanpostuak zehaztea	Departamentua, EAPGZ eta FPZN	Datozen hilabeteetan
Hizkuntza-eskakizuna esleituta daukaten lanpostuei buruzko txosten teknikoak egitea	EAPGZ	Datozen hilabeteetan
Txosten teknikoak aztertu ondoren, behin betiko onestea Plantilla Organikoan hizkuntza-eskakizuna eduki beharreko lanpostuak	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Lanpostuen proposamena Funtzio Publikora igortzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan

Departamentuak, Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzuarekin lankidetzan, derrigortasuna dela-eta lehentasunezkoak diren unitateak identifikatu ditu.

Ondoren, Departamentuak lanpostuen proposamen bat egin du, identifikatutako lehentasunezko unitateei dagokienez. Proposamen hori

EAPGZra bidali da, aholkularitzarako eta lanpostuen egokitasuna egiaztatzeko.

Jarraian, lanpostu-proposamenerako txosten teknikoak egin dira, eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari igorri zaizkio, berrikus dituzan. Datozen hilabeteetan aurreikusita dago helburu horren jarduketa-ildo guztiak aurrera eramatea.

2. helburua. Lehentasunezko unitate organikoetara esleitutako departamentu-langileei euskarazko prestakuntza eskaintzea

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Prestakuntza Atalari hizkuntza-eskakizunen behin betiko proposamena igortzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atalari eskatzea Ikaskuntza eta Hobekuntza Plan bat taxutu dezan	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Hizkuntza-eskakizuna esleitu ez zaien langileen komunikazio-premiak aztertzea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Datozen hilabeteetan
Departamentuari ikaskuntza eta prestakuntza plan bat aurkeztea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Datozen hilabeteetan
Prestakuntza plana inplikaturako pertsonen beharren arabera egokitzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Plana onestea eta langileen prestakuntza hastea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Ikaskuntza eta prestakuntza gauzatzea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Datozen hilabeteetan

Helburu hau gauzatu ahal izateko, hizkuntza-eskakizunen proposamenak behin betikoa izan behar du. Lehen jarduketa-lerro hau garapenean dago, eta 2022ko lehen hilabeteetan gauzatuko da.

3. helburua. Behar diren neurriak hartzea, eskatzen duten pertsoneri arreta euskaraz eman dakien

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Hizkuntza-irizpideen gida bat idaztea, herritarrei arreta bi hizkuntzetan emateko	EAPGZ	Garatzen ari da
Jardute-protokolo bat zehaztea, arreta bi hizkuntzetan emateko hizkuntza-irizpideen gida aplikatzeko	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Gida nola jendearenganatuko den erabakitzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan

Euskarabidea aholku-zerrenda bat prestatzen ari da, lehen erantzun presentzial edo/eta telefonozkoa emateko. Departamentuak hori ezagutarazteko protokolo bat egingen du.

4. helburua. Herritarrei idatzizko informazioa (digitala eta paper bidezkoa) ele bitan ematea

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Itzulpen-beharren koordinazioaren eta idatzizko dokumentazioa analizatzearen ardura izanen duten pertsonak/unitateak izendatzea	Departamentua	Garatzen ari da
Gabeziak eta hutsak identifikatu eta lehenetsiak ezartzea	Departamentua eta EAPGZ	Garatzen ari da
navarra.es atariaren arduradunarekin koordinatzea	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Etengabe garatzen ari da
navarra.es atarian ostatatuta ez dauden webekin lehenetsiak ezartzea	Departamentua eta Itzulpen Zerbitzua	Garatzen ari da
navarra.es atarian ostatatuta ez dauden webetarako aurreikustea zein baldintza bete behar dituzten elebidunak izateko	Departamentua	Garatzen ari da
Departamentuaren aplikazioak direla-eta lehenetsiak ezartzea, elebidunak izan daitezkeen	Departamentua eta Itzulpen Zerbitzua	Garatzen ari da
Inprimaki eta formulario elebidunak eskaintzea	Departamentua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Izapideen fitxak ele bitan argitaratzeko prozedura	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Izapide-fitxa guztiak ele bitan argitaratzea	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Gardentasunaren Atarian argitaratzen denaren zirkuitua zehaztea	Gardentasunaren Ataria eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Itzulpen-eskaerak egiteko jarraibideak egitea	Departamentua eta Itzulpen Atala	Egina

Hasteko, eta berriaz gure departamentuari dagokionez, Telekomunikazioetako eta Digitalizazio Zuzendaritza Nagusia lankidetzan estuan ari da Nafarroako Gobernuaren beste departamentu batzuekin eta Komunikazio Zerbitzua-Gobernuaren Eledunaren Bulegoarekin, web eta aplikazio espezifikoaren garapenean.

Telekomunikazioetako eta Digitalizazio Zuzendaritzaren eta bere unitateen jardunbide egokien kodearen atal gisa, web eta aplikazio horiek bi hizkuntzetan egoteko aukera eskaintzen zaie departamentu guztiei eta haien unitateei.

Departamentuak sistema berri bat jarri du, Euskarabideak diseinatua, itzulpenak eskatu eta kudeatzeko. Zerbitzu bakoitzeko pertsona bat edo gehiago izendatu dira, eta horiek izanen dira eskaerak egiteko baimena dutenak; halaber,

departamentuaren eskaera guztien arduraduna izendatu da. Euskarabideak tresna informatiko bat eskuratu du, hura erabiltzeko jarraibideak eman ditu, eta eskatzaileei prestakuntza eman die.

Gardentasunaren Atarian argitaratzen denaren zirkuitua zehazteko garaian, lehenetsia eman zaie foru lege eta dekretuen aurreproiektu eta proiektuei. Horretarako, Gobernuaren Idazkari-tzako eta Araugintzako Zerbitzuak komunikatuta-ko prozedura bat badago.

Gaur egun, pandemiaren inpaktua dela eta, lehenetsia eman zaio informazio digitalaren arloko jarduketak egiteari. Telekomunikazioetako eta Digitalizazio Zuzendaritza Nagusiak, bide horretan, web eta aplikazioen euskarriak elebita-sunerako formatu egokietan eskaintzen dizkie hala eskatzen duten departamentuei.

Kontuan hartuta lehentasuna eman zaiela informazio digitalaren arloko ekintzei, bi eremutan jardun dugu batez ere: web orriak eta izapideak.

Departamentua lanean ari da navarra.es Atariaren Atalarekin eta Euskarabidearekin batera, navarra.es-en ostatatuta zerbitzuak eta izapideak eskaintzen dituzten web orri propioen eta gaikako weben diagnostikoa egiteko eta ele bitan egon daitezen beharrezkoak diren ekintzak egiteko. Horrez gain, departamentua eta Euskarabidea navarra.es ataritik kanpo ostataturiko web propioen diagnostikoa egiten ari dira.

Arlo horretan egindako ekintza guztiek erantzuten diote herritarrengan eragin handiagoa izatearen irizpideari.

1. Web orriak

1.1. Web orri propioak

Lehenik eta behin, web orri propioak identifikatu dira. Jarraian, haien hizkuntza-egoeraren diagnostikoa egin da. Aldi berean, identifikatu egin dira webetara eramaten diren informazio-fluxuak eta aipatu web orrietan egiten diren edizioen eta ekin-tzen arduradunak. Hori eginda dagoelarik, jardunerako protokolo bat taxutzen da departamentua, Euskarabidea eta, kasua bada, weben arduradunak koordinaturik, edukien jarraipena, zuzenketa, itzulpena eta edizioa egite aldera. Edozein ekintza egiteko orduan, lehentasuna ematen zaie herritarrengan inpaktu handiena dutenei.

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren kasuan hauek dira identifikatutako web orri propioak: Nafarroako unibertsitateetako udako ikastaroen web orria.

Horien hizkuntza-egoera honako hau da:

Web orria gaztelaniaz zegoen eta euskaratu egin da.

Telekomunikazioetako eta Digitalizazioko Zuzendaritza Nagusiak azken bi urteetan argitaratu dituen hiru planak euskarara itzulita daude. Hurrengo hilabeteetan gaikako webak argitaratuko dira, horiek ere euskaraz eta gaztelaniaz, honako arlo hauetan:

- Inklusio eta Gaikuntza Digitalerako Plana <https://picd.navarra.es/eu>
- NED2030: <https://nd2030.navarra.es/eu>
- Banda Zabalerako Plana II <https://bandaancha.navarra.es/eu/plan-director-de-banda-ancha-ii>

Uniibertsitateko Zuzendaritza Nagusian 2021ean abiarazi dira unibertsitate-bekak izapide-tzeko aplikazioa eta dagokion web orria. Horiek bai euskaraz bai gaztelaniaz aurkezten dira.

- <https://www.navarra.es/eu/web/becasuniversidad>
- <https://administracionelectronica.navarra.es/uni-becas>

1.2. Gaikako web orriak

Gaikako web orriak, izenak adierazten duen bezala, gaiei lotuta daude, eta ez departamentuei, zeren eta gaiak, orokorrean, egonkorrak baitira eta departamentuak, berriz, legegintzalditik legegintzaldira alda baitaitezke. Esparru honetako lana, hala eta guztiz ere, departamentuekin egin da.

Ez dago departamentu honi dagokion web orri espezifikorik, salbu eta Hezkuntzako web orrian unibertsitate-bekei erreferentzia egiten dieten zenbait atal (web orri hori jada bi hizkuntzetan dago) eta enpresa eta profesionalen gaikako orriaren barnean I+G+B laguntzei buruz azaltzen dena (web orri hori itzultzeko dago).

2. Izapideak

Izapideei dagokienez, ikusten ari da denboran egonkorrak diren izapide batzuk badaudela, epe jakin batzuk badituztenak. Lehentasunak ezarri dira jarduketa-irizpideetan, izapideak elebidunak izan daitezen, eta lanean hasi gara denboran egonkorrak diren eta erabiltzaile gehiago dituzten izapideak ere prestatzeko.

Horretarako, izapideen, sarrera kopuruaren eta izapide horiek editatzen dituzten pertsonen diagnostikoa egin da, eta, aurreko puntuan bezala, departamentuarekin, Euskarabidearekin eta navarra.es Atariaren Atalarekin lankidetzan ari gara.

Protokolo bat sortu da izapide egonkorrak itzultzeko.

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren kasuan, denboran egonkorrak diren bi izapide baino ez daude, eta jada bi hizkuntzetan daude. Gainerakoak deialdiei dagozkie. Garrantziari eta herritarrengan duten eraginari begira, Unibertsitateen Atalari dagozkionak lehenetsi dira eta dauden lau deialdietatik hiru euskaratu dira. Horretarako, izapideak argitaratzen dituztenekin aurreko prestakuntza saio bana egin da inplikaturako unitateetan (Unibertsitateko Atalean eta I+G+b Zerbitzuan). Gaur egun, eta saiakuntza pilotu gisara, I+G+b Zerbitzuan deialdi bat euskaratzen ari da.

Lehentasunezko arreta jarri behar zaie foru lege eta dekretuen aurreproiektu eta proiektuei, eta horretarako badago prozedura bat, Gobernuko Idazkaritzaren eta Araugintzaren Zerbitzuak jakinarazia.

Hizkuntza-paisaia

5. helburua. Herritarrak artatzen diren espazio fisikoen errotulazioa eta informazio elebiduneko elementuak (bulegoak, arretaguneak ...): hizkuntza-paisaia.

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Fitxa bat sortzea jardun behar den tokietarako	EAPGZ	Egina
Fitxa osatzea jardun behar den tokietarako	Departamentua	Egina
Fitxa bat sortzea jardun behar den tokien diagnostikoa egiteko	EAPGZ	Egina
Diagnostikoa osatzea unitate bakoitzeko langileekin	Departamentua	Egina
Fitxa aztertzea proposamena egiteko	EAPGZ	Egina
Itzulpen Atalera bidaltzea	Departamentua	Egina
Elementu berriak jartzea	Departamentua	Egina
Lanpostuen identifikazioa diseinatzea	EAPGZ	Egina
Lanpostuak identifikatzea	Departamentua	Garatzen ari da

Errotulazio-txostena

Errotulazioaren gaineko txostena egin da, eta hizkuntza-paisaiari buruzko informazioa biltzeko erabili beharreko metodologia adostu dute Euskarabideko teknikariek eta departamentuko solaskideek. Horretarako, errotulazioaren argazkiak egin eta egoitza eta/edo lehentasunezko unitate bakoitzari dagozkion fitxak osatu dira. Horiek egiteko, aprobeixatu egin dira, kasu batzuetan, Euskarabideko teknikariek Departamentuaren egoitzetara eginiko bisitak; eta, beste batzuetan, Departamentuko pertsonak egin dituzte.

Txostena 2020ko ekainaren 16an egindako bileran aurkeztu zitzaion departamentuari. Egoitza hauek aztertu dira:

- Departamentuaren egoitza nagusia

Txostenetik ateratako datu orokorrak honako hauek dira:

Ez dago errotulazio elebidunik departamentuaren egoitzaren barnealdean, edota dagoena zaharkituta dago, legegintzaldi honetan sortutako departamentu berria baita.

Egoera zuzentzeko, txostenean zenbait gomendio ematen dira, eta jada gauzatzen ari dira. Lehenik, departamentuaren barneko errotulazioa berritzeari ekin zaio. Errotulu zaharrak kendu eta paperezko errotulu elebidunak jarri dira behin-behinean, departamentuaren egoitza hobetzeko eta egokitzeko obrak egiten diren bitartean. Hala-ber errotulazioari buruzko txostena eskatu da, obra horien proiektuari erantsiko zaiona. Txosten

hori Euskarabideari aurkeztuko zaio, gauzatu aurretik oniritzia eman diezaion.

Identifikatzaileak, pinak

Euskarabideak pinak eta mahai gaineko identifikatzaileak sortu ditu, eta departamentua hizkuntza-eskakizuna duten langileen eta eskatzen duten pertsonen artean horiek banatzen ari da, herritarrek jakin ahal izan dezaten zein unitatean ematen den zerbitzu elebiduna.

6. helburua. Zerbitzu publikoak adjudikatzeko hizkuntza-irizpideak ezartzea.

Zerbitzu publiko horiek ematen dituzten enpresen diagnostiko bat egiten ari da. Heldu den urtean garatuko da.

Bigarren galdera: Egin al da departamentuaren plantilla organikoan beharko liritekeen hizkuntza-eskakizunen zehaztapena? Hizkuntza plan berriaren arabera, zenbat lanpostutan ezarriko da profil elebiduna? Zein izanen da, guztira, departamentuan izanen diren lanpostu elebidunen portzentajea?

Lehen helburuari buruzko aurreko erantzunean zehazten den bezala, lanpostu-proposamenari buruzko txosten teknikoak egin eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari bidali zaio.

Momentuz, ezin da lanpostuen proposamenari buruzko datu zehatzik eman, zeren eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde autonomoetako langile funtzionarioen eta estatutupekoen Negoziazio Mahai Orokorrean negoziazio kolektiboaren prozedura gauzatu behar baita, administrazio publikoetan euskararen

erabilera arautzen duen azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren zazpigarren xedapen gehigarriak ezartzen duen moduan. Prozesu hori datozen hilabeteetan egitea aurreikusi da.

Eman daitezkeen datuak plantillaren egungo egoerari buruzkoak dira. Departamentuak oinarriko 99 lanpostu ditu eta bat ere ez da elebiduna.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2021eko urriaren 13an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa

Galdera, Hezkuntza Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa. Galdera 2021eko irailaren 13ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 10-21-00243 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hasteko, egin diren ekintza eta lan batzuk azalduko ditugu, departamentuaren hizkuntza plana garatzeko beharrezkoak izan direnak.

Plan hori ezarri ahal izateko, 4. puntuan (Antolamendu-egitura eta jarraipena) zehaztutako jarraibideei jarraitu diegu.

Horretarako, departamentuak teknikari bat eta departamentuaren hizkuntza planaren arduradun bat izendatu ditu.

Lehenengo bilera bat egin zen plana aurkezteko, eta, gero, zenbait bilera tekniko ere egin ziren departamentuak eta Euskarabideak izendatutako pertsonen artean, planaren garapenari eta ezarpenari buruzko aholku- eta akonpainamendulanak egiteko.

Departamentuaren eta Euskarabidearen artean etengabeko lankidetzat dago plana inplementatzeko.

Horretaz gainera, azarorako departamentuartereko batzorde teknikoaren bilera bat programatu da.

Departamentuko hizkuntza planaren ezarpenen diharduten pertsonen prestakuntza jaso dute 2020ko azaroaren 4an eta 5ean.

Plana garatzeko, besteak beste honako unitate hauekin elkarlanean ari gara:

- Departamentua (planaren arduradunak, koordinazio-teknikariak, idazkaritza teknikoak, kabine-tea)
- Euskarabidea (Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua-Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua)
- Komunikazio Zerbitzua-Gobernuaren Eledu-naren Bulegoa
- Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia

Lehenengo galderaren erantzuna:

– Zertan dago Hezkuntza Departamentuaren hizkuntza planaren garapena? Zein da departamentu honetan ezarritako sei helburuen baitan zehaztu diren jarduketatiko bakoitza betetzeko epea?

Jarraian, honako hauek zehaztuko ditugu: hizkuntza-planaren jarduketatikoak, unitate arduraduna eta ezarritako helburuen betetze-egoera.

1. helburua: lehentasunezko unitate organikoetan hizkuntzaren derrigortasuna ezartzea

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Lehentasunezko unitateak identifikatzea, derrigortasunari dagokionez	Departamentua eta Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua	Egina
Plantilla Organikoan sartu beharreko lanpostu elebidunen kopuruari buruzko txosten-proposamena egitea	EAPGZ eta departamentua	Egina
Balorazioa egin ondoren, txostena Funtzio Publikora igortzea, sindikatuekiko negoziazioa hasteko	Departamentua	Egina
Proposamena negoziatzea Funtzio Publikoaren Negoziazio Mahaian	Departamentua, Euskarabidea eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia	Datozen hilabeteetan
Sindikatuekiko negoziazioaren ondoren, hizkuntza-eskakizuna esleitu beharrekoak duten lanpostuak zehaztea	Departamentua, EAPGZ eta FPZN	Datozen hilabeteetan
Hizkuntza-eskakizuna esleituta daukaten lanpostuei buruzko txosten teknikoak egitea	EAPGZ	Datozen hilabeteetan
Txosten teknikoak aztertu ondoren, behin betiko onestea Plantilla Organikoan hizkuntza-eskakizuna eduki beharreko lanpostuak	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Lanpostuen proposamena Funtzio Publikora igortzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan

Departamentuak, Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzuarekin lankidetzan, derrigortasuna dela-eta lehentasunezkoak diren unitateak identifikatu ditu.

Ondoren, Departamentuak lanpostuen proposamen bat egin du, identifikatutako lehentasunezko unitateei dagokienez. Proposamen hori

EAPGZri igorri zaio, aholkua eman eta lanpostuen egokitasuna egiazta dezan

Jarraian, lanpostu-proposamenerako txosten teknikoak egin dira, eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari igorri zaizkio, berrikus ditzan.

Hurrengo hilabeteetan helburu honetako jarduketako guztiak gauzatzea aurreikusten da.

2. helburua. Lehentasunezko unitate organikoetara esleitutako departamentu-langileei euskarazko prestakuntza eskaintzea

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Prestakuntza Atalari hizkuntza-eskakizunen behin betiko proposamena igortzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atalari eskatzea Ikaskuntza eta Hobekuntza Plan bat taxutu dezan	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Hizkuntza-eskakizuna esleitu ez zaien langileen komunikazio-premiak aztertzea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Datozen hilabeteetan
Departamentuari ikaskuntza eta prestakuntza plan bat aurkeztea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Datozen hilabeteetan
Prestakuntza plana inplikaturako pertsonen beharren arabera egokitzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Plana onestea eta langileen prestakuntza hastea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Ikaskuntza eta prestakuntza gauzatzea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Datozen hilabeteetan

Helburu hau gauzatu ahal izateko, hizkuntza-eskakizunen proposamenak behin betikoa izan behar du. Lehen jarduketa-lerro hau garapenean dago, eta 2022ko lehen hilabeteetan gauzatuko da.

3. helburua. Behar diren neurriak hartzea, eskatzen duten pertsoneri arreta euskaraz eman dakien

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Hizkuntza-irizpideen gida bat idaztea, herritarrei arreta bi hizkuntzetan emateko	EAPGZ	Garatzen ari da
Jardute-protokolo bat zehaztea, arreta bi hizkuntzetan emateko hizkuntza-irizpideen gida aplikatzeko	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Gida nola jendearenganatuko den erabakitzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan

Euskarabideak aholkuen zerrenda bat prestatu du, lehen erantzun presentzial edo/eta telefono bidezkoa emateko. Argitaratzeko fasean dago. Behin argitaratuta, departamentuak haren zabal-kunderako protokoloa ezarriko du.

4. helburua. Herritarrei idatzizko informazioa (digitala eta paper bidezkoa) ele bitan ematea

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Itzulpen-beharren koordinazioaren eta idatzizko dokumentazioa analizatzearen ardura izanen duten pertsonak/unitateak izendatzea	Departamentua	Garatzen ari da
Gabeziak eta hutsak identifikatu eta lehentasunak ezartzea	Departamentua eta EAPGZ	Egina, garatzen ari da
navarra.es atariaren arduradunarekin koordinatzea	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Egina, etengabe garatzen ari da
navarra.es-en ostatatuta ez dauden webekin lehentasunak ezartzea	Departamentua eta Itzulpen Zerbitzua	Garatzen ari da
navarra.es-en ostatatuta ez dauden webetarako aurreikustea zein baldintza bete behar dituzten elebidunak izateko	Departamentua	Garatzen ari da
Departamentuaren aplikazioak direla-eta lehentasunak ezartzea, elebidunak izan daitezten	Departamentua eta Itzulpen Zerbitzua	Garatzen ari da
Inprimaki eta formulario elebidunak eskaintzea	Departamentua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Izapideen fitxak ele bitan argitaratzeko prozedura	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Izapide-fitxa guztiak ele bitan argitaratzea	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Gardentasunaren Atarian argitaratzen denaren zirkuitua zehaztea	Gardentasunaren Ataria eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Itzulpen-eskaerak egiteko jarraibideak egitea	Departamentua eta Itzulpen Atala	Egina

Departamentuak sistema berri bat jarri du, Euskarabideak diseinatu, itzulpenak eskatu eta kudeatzeko. Zerbitzu bakoitzeko pertsona bat edo gehiago izendatu dira, eta horiek izanen dira eskaerak egiteko baimena dutenak; halaber, departamentuaren eskaera guztien arduraduna izendatu da. Euskarabideak tresna informatiko bat eskuratu du, hura erabiltzeko jarraibideak eman ditu, eta eskatzaileei prestakuntza eman die.

Hizkuntza planaren 2.4 puntuan komunikazioen eta baliabideen diagnostikoa egin zen, eta osatzen ari da.

Gardentasunaren Atarian argitaratzen denaren zirkuitua zehazteko garaian, lehentasuna eman zaie foru lege eta foru dekretuen aurreproiektu eta proiektuei. Horretarako, Gobernuaren Idazkaritzako eta Araugintzako Zerbitzuak komunikatutako prozedura bat badago.

Gaur egun, pandemiaren inpaktua dela eta, lehentasuna eman zaio informazio digitalaren arloko jarduketak egiteari. Esparru horretan, Aurrerapen Digitalerako Zerbitzuak, hala eskatzen duten departamentuei, elebidunak izateko egokiak diren formatuetan eskaintzen dizkie webetarako eta aplikazioetarako euskarriak.

Kontuan hartuta lehentasuna eman zaiela informazio digitalaren arloko ekintzei, bi eremutan jardun dugu batez ere: web orriak eta izapideak.

Departamentua lanean ari da navarra.es Atariaren Atalarekin eta Euskarabidearekin batera, navarra.es atarian ostatatuta zerbitzuak eta izapideak eskaintzen dituzten gaikako web orrien diagnostikoa egiteko eta ele bitan egon daitezen beharrezkoak diren ekintzak egiteko. Horrez gain, departamentua eta Euskarabidea navarra.es ataritik kanpo ostatatutako web propioen diagnostikoa egiten ari dira.

Arlo horretan egindako ekintza guztiek erantzuten diote herritarrengan eragin handiagoa izatearen irizpideari.

1. Web orriak

1.1. Web orri propioak

Departamentuak web orri propio bat dauka, tamaina handikoa eta herritarrengan inpaktu handia duena. Ele bitan dago. Euskarabidearen eta

departamentuaren arteko bilera bat planteatu da diagnostiko zehatzagoa egiteko eta hobekuntzak proposatzeko.

1.2. Gaikako web orriak

Gaikako web orriak, izenak adierazten duen bezala, gaiei lotuta daude, eta ez departamentuei, zeren eta gaiak, orokorrean, egonkorrak baitira eta departamentuak, berriz, legegintzalditik legegintzaldira alda baitaitezke. Esparru honetako lana, hala eta guztiz ere, departamentuekin egin da.

Gaikako weben kasuan, departamentua da edukiak sortzeko ardura duena, eta navarra.es Atariaren Atala, berriz, haren kudeaketaz arduratzen den unitatea da. Web horiek nahiko estatikoak dira, eta gaur egun berrikusiak, gaurkotuak eta formatu berriz jantziak izaten ari dira. Modu koordinatuan lan egiten ari da departamentuaren, navarra.es Atariaren Atalaren eta Euskarabidearen artean, gaikako web horiek hobetzeko lanak (azala, izapideak eta beste web eduki batzuk barne) egiten direnean, web orri elebidunak sor daitezten.

Hezkuntza Departamentuaren gaikako web orria gaztelaniaz zegoen, eta itzulpena koordinatu da Euskarabidearen eta Komunikazio Zerbitzua-Gobernuaren Eledunaren Bulegoaren artean. Gaur egun ele bitan dago.

2. Izapideak

Izapideei dagokienez, ikusten ari da denboran egonkorrak diren izapide batzuk badaudela, epe jakin batzuk badituztenak.

Lehentasunak ezarri dira jarduketa-irizpideetan, izapideak elebidunak izan daitezen, eta lanean hasi gara denboran egonkorrak diren eta erabiltzaile gehiago dituzten izapideak ere prestatzeko.

Horretarako, izapideen, sarrera kopuruaren eta izapide horiek editatzen dituzten pertsonen diagnostikoa egin da, eta, aurreko puntuan bezala, departamentuarekin, Euskarabidearekin eta navarra.es Atariaren Atalarekin lankidetzan ari gara.

Protokolo bat sortu da izapide egonkorrak itzultzeko.

5. helburua. Herritarrak artatzen diren espazio fisikoen errotulazioa eta informazio-elementu elebidunak (bulegoak, arretaguneak...): hizkuntza-paisaia.

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Fitxa bat sortzea jardun behar den tokietarako	EAPGZ	Egina
Fitxa osatzea jardun behar den tokiekin	Departamentua	Egina
Fitxa bat sortzea jardun behar den tokien diagnostikoa egiteko	EAPGZ	Egina
Diagnostikoa osatzea unitate bakoitzeko langileekin	Departamentua	Egina
Fitxa aztertzea proposamena egiteko	EAPGZ	Egina
Itzulpen Atalera bidaltzea	Departamentua	Beharrezkoa denean
Elementu berriak jartzea	Departamentua	Beharrezkoa denean
Lanpostuen identifikazioa diseinatzea	EAPGZ	Egina
Lanpostuak identifikatzea	Departamentua	Egina, garatzen ari da

Hizkuntza-paisaia

Errotulazio-txostena

Errotulazioaren gaineko txostena egin da, eta hizkuntza-paisaiari buruzko informazioa biltzeko erabili beharreko metodologia adostu dute Euskarabideko teknikariek eta departamentuko solaskideek. Horretarako, departamentuko teknikariak errotulazioaren argazkiak egin ditu eta lehentasunezko unitate edo egoitzei dagozkien fitxak bete ditu. Euskarabideak errotulazioari buruzko txostena egin du. Txostena datorren urrian aurkeztuko zaio departamentuari.

Honako hauek aztertu dira:

- Santo Domingoko egoitza
- Musikaren Hiria: Goi Mailako Musika Kontserbatorioa eta Pablo Sarasate Musika Kontserbatorio Profesionala
- Nafarroako Eskola Kontseilua.

Identifikatzaileak, pinak

Euskarabideak pinak eta mahai gaineko identifikatzaileak sortu ditu, eta Departamentua hizkuntza-eskakizuna duten langileen eta eskatzen duten pertsonen artean horiek banatzen ari da, herritarrek jakin ahal izan dezaten zein unitatetan ematen den zerbitzu elebiduna.

6. helburua. Zerbitzu publikoak adjudikatzekeo hizkuntza-irizpideak ezartzea

Zerbitzu publiko horiek ematen dituzten enpresen diagnostikoa egiten ari da. Heldu den urtean garatuko da.

Bigarren galderaren erantzuna:

– Egin al da departamentuaren plantilla organikoan beharko liritekeen hizkuntza-eskakizunen zehaztapena? Hizkuntza plan berriaren arabera, zenbat lanpostutan ezarriko da profil elebiduna? Zein izanen da, guztira, departamentuan izanen diren lanpostu elebidunen portzentajea?

Lehen helburuari buruzko aurreko erantzunean zehazten den bezala, lanpostu-proposamenari buruzko txosten teknikoa egin eta Funtzio Publiko Zuzendaritza Nagusiari bidali zaio.

Momentuz, ezin da datu zehatzik eman, zeren eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko eta haren erakunde autonomoetako langile funtzionarioen eta estatutupekoen Negoziazio Mahai Orokorrean negoziazio kolektiboaren prozedura gauzatu behar baita, administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren zazpigarren xedapen gehigarriak ezartzen duen moduan. Prozesu hori datozen hilabeteetan egitea aurreikusi da.

Eman daitezkeen datuak plantillaren egungo egoerari buruzkoak dira. Departamentuak oinarriko 8.022 lanpostu ditu guztira, eta horietatik 2.298 dira elebidunak, hau da, plantilla organikoaren % 28,64. Irakasle lanpostuak kontuan hartu gabe departamentuak 841 lanpostu ditu, eta horietatik 143 dira elebidunak, hau da, plantillaren % 17,00.

Iruñean, 2021eko urriaren 1ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2021eko azaroaren 4an onetsitako erabakiak..

Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatua betetzeko, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2021eko azaroaren 4an onetsitako erabakiak.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2021eko azaroaren 4an onetsitako erabakiak

Lehena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala har ditzan beharrezkoak diren baliabideak Nafarroako herritarrek arlo hauetan dituzten beharrizanak betetzeko, helburu hauekin:

– Gure osasun-sistema publikoan arreta duina eta kalitatekoa bermatzea, lehentasuna emanda oinarrizko osasun laguntzaren zuzeneko arretari eta lurralde ekitateari. Ezinbestekoa da oinarrizko osasun laguntzarako eta etorkizuneko arreta jarraiturako eredu bat diseinatzea: espezialitate berriak (fisioterapia, psikologia, geriatría...) sartu behar dira, osasun zentro/kontsultategi gehiago jarri behar dira eta berrikuntza teknologikoa sustatu behar da.

– Talka plan bat egitea familia-medikuntzako, pediatriako, espezialitateetako, erizaintzako... plazak premiaz betetzeko. Horretarako, azkartu eta erraztu egin behar da lan publikoaren eskaintza masiboen izapidetzea; aldatu egin behar dira merezimenduen baremoak, errealitate sozialera eta profesionalera egokitzeko; irizpide argiak eza-

rri behar dira betetzeko zailak diren landa eremuetan profesionalak fidelizatzeko.

– Beharrizanen mapak eta diagnostikoa egitea, adinekoentzako eta/edo desgaitasunen bat duten pertsonentzako baliabide publikoen –egunekozentzako, adibidez– sarea zabaltzeko, tokiko erakundeekin elkarlanean.

– Baliabide eta zerbitzu publiko gehiago jarritzea, daudenak indartzea eta berriak sortzea, lana eta familia bateragarri egiteko aukera eta pertsona guztiei zainketa duinak bermatzeko.

– Arreta publikoa emateko eredu berri baten alde egitea modu eraginkorrean, beharrezkoa den finantzaketa ezarrita eta arauetan egin beharreko aldaketak eginda. Eredu horrek pertsonetan zentratuta egon behar du eta baliabide berriak behar ditu, hala nola tutoretzapeko apartamentuak, etxeak, etxebizitza publikoa edo etxekidetzak.

Bigarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1.- Apustu egin dezan toki-entitate guztientzako finantzaketa-eredu justuago, solidarioago eta nahikotasun handiagoko baten alde.

2.- Apustu egin dezan Toki Azpiegituren Plan berri baten alde, zeinak egonkortasuna bermatuko eta inbertsio desberdinen plangintza erraztuko baitu.

3.- Apustu egin dezan Toki ogasunen Funtsa banatzeko eredu baten alde, zeinak:

a. Toki entitateen finantzaketaren arloko beharra eta gaitasuna aintzat hartzen duen banaketa-formula bat garatu behar du.

b. Aintzat hartu behar ditu udalek ematen dituzten zerbitzuak, hala nola ikastetxeak, 0-3 zentroak, liburutegiak edo montepioak.

c. Aintzat hartu behar du Foru Komunitate osoarentzat zein beste maila batzuetan traktore diren udalerrien berezitasuna.

4.- Apustu egin dezan halako finantza-eredu baten alde non nafar herritar guztientzako kalitatezko zerbitzu publikoak bermatuko baititu, non bizi diren gorabehera.

5.- Betiere, finantza-sistema horri heldu behar ko zaio Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari entzunez, Nafarroako toki entitateen osotasunaren ordezkari diren aldetik.

Hirugarrena.

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako eta Espainiako gobernuak premiatzen ditu ekonomia zirkularrean oinarrituriko trantsizioa taxutu dezaten ekoizpen- eta kontsumo-ereduarentzat, berdin zainduko duena planetaren ingurumen-jasangarritasuna eta gure ongizate-estatuaren mantentzea eta hobekuntza.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du eragile sozial eta ekonomikoekin batera lan egin dezan trantsizioa bidezkoa izatea lortzeko eta ekoizpen-eredu berriak kalitatezko enplegua sortzeko ahalmena izan dezan.

3.- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du ahalik lasterrena egin dezan EB 2018/2001 ETA 2019/944 zuzentarauen osotasunaren transposizioa, halatan pizgarriak emate alderaw energia berriztagarrien sorkuntzarako, autokontsumorako eta sorkuntza banaturako.

4.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Nafarroako Berrikuntza Digitaleko Poloak gauzatu dezan, giltzarri izan behar duena Nafarroako Adimen Artifizialaren Zentroaren eta Datu Agentziaren garapenean.

Laugarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1.- Administrazio publikoen zerbitzura diharduten langileei berdintasun-arloan beharrezkoak diren eskumenak esleitzera, genero-ikuspegia txertatuta administrazioak bere ohiko jardunean darabilen informazioaren bilketan, tratamenduan eta jakinarazpenean; pixkanaka eskatuz berdintasun-alorreko ezagutza izatea; kontrataziora eta laguntza publikoetara begirako genero-ikuspegia txertatzeko bitarteko neurgarriak sortuta; eta behatoki bat eratuta, modua emanen duena administrazio publikoek eginiko komunikazioan gauza-

turiko berdintasun-transbertsalizatzeari jarraipena emateko.

2.- Neurriak bultzatzen dituzten administrazio publiko guztietan eta batik bat organo erabaki-hartzaileetan ezartze aldera ordezkari-tza paritarioaren printzipioa, askotariko arloetan, hala nola politikoa, soziala, hezkuntza, ekonomia, kultura, kirola eta abar.

3.- Emakumeen eta/edo feminismoaren erakundeak eta berdintasunerako beste parte-hartze gune batzuk langintza sozio-politikoan aitor ditzan eta haiei lagun egiten segi dezan.

4.- Gizonezko-tasun askotarikoak eta berdintasungileak sustatu dituzten, maskulinitatearen eta edonolako indarkeria-motaren arteko harremanari ezetza emanen diotenak, gizonen kritikotasuna suspertuz jasotako pribilegioak direla-eta, Nafarroako, herrialdeko eta nazioarteko gizon berdinezaleen genalogia ezagutuz, eta ikusgai eginez gizon-zekotasun berdinezale batek gizartearen osotasunarentzat dakartzan onurak, bidezko-tasunean, gizatasunean eta garapenean sakonduta.

5.- Desgaitasundun diren emakume eta neska-tuen ahaldu-tze-prozesuak irmotzea, erreferente bilaka daitezkeen, haien ekarpen eta erreibindikazioek aitorpena izan dezaten eta beren bizi-ibilbideen parte diren alor guztietan aitzindari jardun ahal izan dezaten. Horretarako, haien autonomia pertsonal bizitza beregain eta erkidegoratzerako laguntza material eta pertsonalaren ematea bermatuko da.

6.- Sexu-esplotaziorako emakume-salerosketaren aurkako Nafarroako Foroarekin koordinaturik irmotu ditzan prostituzio-egoeran dauden emakume eta neska-toei zuzenduriko laguntza integralerako, prebentziorako eta berreskurapenerako plan guztiak, lortze aldera laneratze-ibilbideak eta behar adinako diru-euskarria berma diezazkieten, prostituzio-egoera bertan behera uzteko aukera emanen dien prozesuan zehar.

7.- Emakumeenganako indarkeriaren aurka jarduteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea garatzen jarrai dezan, emakumeen aurkako indarkeriak deslegitimatatu eta desnaturalizatzeko, indarkeria horiek gizarte-antolamendua zeharkatzen baitute, egiturazko sustraiak baitauzkate, ez baitira kasualitatezko indarkeria anekdotikoak, ez eta gertakariak, izurriak, pandemiak edo okerbide solteak, baizik eta elkarren artean uztarturiko indarkerien saretzeak.

8.- Aurrerapausoak ematen segi dezan LGTBI+ pertsonen eskubide-berdintasun errealerantz eta sexu-orientazioagatiko, genero-

adierazpideagatiko eta sexu- nahiz genero-nortasunagatiko diskriminazio ororen aurka, Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek eskumena daukaten alor guztietan.

9.- Hezkidetzaren garatzen segitzea, Nafarroako hezkuntza-sistema osoaren ardatz zentral gisa harturik eta oinarritzko lanabestzat joz askoz ere berdinzaleagoa izan den gizarte bat eraikitzeke, genero-rol eta -estereotipoak apurtzeko, emakumeak alor guztietan ikusgai egiteko eta indarkeria matxistak deuseztatzeke.

Bosgarrena.

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du aurrera segi dezan ongizate-estatu moderno, kalitatezko, garantista eta unibertsal bat tankeratzearen zerbitzu publikoen gure sistemak beharrezko dituen egiturazko birmoldaketekin, xede harturik haren babes-ekintza zabaldu eta osatzea, zaurgarrien diren pertsonentzako arreta indartzea eta pertsona guztiei aukera berdintasuna emanen dien suspertze eta eraldatze bidezkoa bermatzea.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du lanean segi dezan Oinarritzko Laguntzaren modernizazio eta sendotzearen alde, prebentziorako eta detekzio goiztiarrerako ezinbesteko elementua den aldetik. Presentzialtasuna bermatu behar dugu, baina aldi berean zerbitzua modernizatu, teknologia berriak eta telemedikuntzak eskaintzen dizkiguten abantaila diagnostikoak baliatuz.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du segi dezan lanean iraupen luzeko zaintzetarako ereduaren aldaketan. Horretarako, beharrezkoa da aurrerapausoak ematea, pertsona, hurbileko zerbitzuen zabaltea eta autonomia sustatu eta berreskuratzeko politikak ardatz gisa hartuko dituen arreta-eredua guztienganatzeko.

4.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du hezkuntza-sistema publiko indartzen segi dezan, ezinbesteko tresna baita aukera-berdintasunerako; horretarako, azpimarra berezia jarriko da 0tik 3 urtera bitarteko haurren hezkuntzaren unibertsalizazioan.

5.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du segi dezan Lanbide Heziketari bultzada ematen, hura lan-merkatuaren beharrian berrietara egokitzen, halaber bultzada emanez LH Dualaren bitartezko prestakuntza praktikoari eta enfasi berezia jarriko gazteen trebakuntzak haien laneratzeko daukan premiazko izaeran.

Seigarrena.

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du programak eta ekintzak egin ditzan gure gizartearen elkarbizitza sustatze aldera sistema demokratiko baten berezko eta lehenetsutako osagai gisa, gizarte osasuntsu bat eraikitzeke ezinbesteko urrats gisa. Oinarriturik egonen dira dena delako arrazoi ideologiko, erlijioso, kultural edo bestelakoengatik desberdin den horrekiko begirunean. Ildo horretan, gai hau jorratzen duten toki entitate eta sozietate zibileko erakundeekiko lankidetzaren berezia sustatuko da.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du segi dezan Nafarroako hezkuntza-sisteman sustatzen eta hedatzen halako programak non modua emanen baitute memoria demokratikoko politika publiko bat jokoan jartzeko, haren helburuen artean izan den duena herritartasun demokratiko baterako hezkuntza. Curriculumean aldi berean txertatuz iraganaren egiari buruzko ezagutza objektiboa eta balio zibiko eta etiko demokratikoen alorreko prestakuntza, benetan lagungarri izan den ikasleek desiragarria den herritar-gaitasuna erdiesteko. Gaitasun hori beharrezkoa da indarkeria-gertakariak, jokabide autoritarioak eta giza eskubideen zapalkuntza ekiditeko eta horrenbestez prebenitu eta ez errepikatzeke antzeko gertakari negargarri iraganekoak.

Zazpigarrena.

1.- Nafarroako Parlamentuak bultzatu egingen ditu Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeko abuztuaren 10eko 13/1982 Foru Legean ezarritako eskumenak osoki garatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak.

2.- Nafarroako Parlamentuak erreklamatzeko du Estatuak eskualdatu ez dituen eskumenei buruzko negoziazioa, eta horretarako beharrezkoak diren eskualdaketak burura eraman daitezkeen.

3.- Nafarroako Parlamentuko Lehendakariak, 2022an LORAFNaren berrogeigarren urteurrena betetzen dela-eta, honako jarduerak hauek bultzatuko ditu:

a. Foru autogobernuaren eta Foruen Hobekuntzaren indarraldiaren balantzeari buruzko jardunaldiak, irakaskuntzako eta unibertsitateko adituekin.

b. Batzorde txostengile bat sortzea, Foru Parlamentuan ordezkariak izan diren talde eta elkarte guztiekin, Foruen Hobekuntzaren eguneratzea azter dezan.

Zortzigarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideak bermatzeko foru lege bat egin dezan. Lege hori desgaitasunari buruzko foru araudiaren ardatza izanen da, Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioarekin bat eta konbentzio horrek desgaitasunari ematen dion ikuspegia –giza eskubideei eta oinarritzko eskubideak baliatzeko berme integralari loturako gai gisa– aintzat hartuta.

Bederatzigarrena.

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du irakaskuntza publikoa garatzeko bultzada sendoa eman dezan legegintzaldia amaitzeko geratzen den denboran. Horretarako, eskaintza publikoa eta egonkortasuna handitu behar da, Nafarroako Foru Komunitateko eskola publikoen sarea hedatu behar da, guzior eskola arrakasta eta gizarteratzea lortzeko lan eginen duen hezkuntza gizarteratzailea, inklusiboa eta laikoago bermatzeko elementu gisa.

a) Haur Hezkuntzako 1. zikloko hezkuntza- eskaintza publiko bat, halako moduzkoa non bermatuko baita herritar guztiek irakaskuntza horiek jaso ahal izatea kalitate, ekitate eta iraunkortasun-bermeko baldintzetan, aurrera eginez hezkuntza- etapa hori Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxe publikoen sarean sartzeko bidean.

b) Behar besteko eskaintza publikoa euskaraz eta gaztelaniaz, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako maila guztietan.

c) Onarpen-prozedura bidezkoa eta inklusiboa, gurasoen bizilekuan/lantokian eskolatze inklusiboa sustatzen duena.

d) Irakaskuntza publikoan eskolatzea sustatzea, hau da, eskola-unitate publikorik ez kentzea eskolatze eskaera aintzat hartuta, eta ikastetxe publikoan lekua eskatu duten ikasle guztiei eskolan leku bat bermatzea.

e) Erljioaren irakaskuntza eta haren alternatibak legeaz ezarritako gutxienez murriztea.

f) Eskolako curriculumean heziketa afektibo-sexualaren, indarkeriarik ezaren, elkarbizitzaren eta herritar aktiboak eta arduratsuak izateko edukioak sartzeko.

g) Irakaskuntza publikoko profesionalen laneko baldintzak eta prestakuntza eskuratzeko baldintzak hobetzea.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikastetxe pribatu itunduekin sinatutako ituna kendu diezaien ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten eskola-unitateei, HLOALOn gai hori dela-eta ezarritakoarekin bat.

Hamargarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1.- Gazteen independentzian eta haien eskubideen aitorpenean, aintzasun sozial, linguistiko eta kultural ororen defentsan eta sustapenean, berdintasunean eta bizitzaren eta zaintzaren iraunkortasunean, balio solidarioen sakontzean eta aukeren garapenean oinarritutako eraldaketa sozialaren aldeko apustu argia egiten duten politika publikoak diseinatzea.

2.- Gizarte eta lurralde kohesioarekin lotutako balioak eraldaketa sozialaren eta gazteen independentziaren ikuspegitik sustatzen dituzten politikak, programak eta jarduketak indartzea aurrekontuaren bidez.

3.- Gazteei unibertsaltasuna eta berdintasuna bermatzea baliabideak eskuratzeari dagokionez, eta edozein arrazoi edo baldintza dela-eta gazteek jasaten duten edozein gizarte-bazterketa/gutxiespen murriztea. Ildo horretan, irisgarritasun unibertsalerako prozesuak indartzen jarraitu beharko dugu beste eremu sozial batzuekin sinergiak sustatuta, desgaitasunen bat duten gazteen inklusioa sustatzen jarraitzeko.

4.- EmanZipa programa mantentzea, gazteei bizimodu autonomoa eta independentea izateko aukera ematen dien emantzipazio sozialerako prozesuaren parte baita etxebizitza bat eskuratu ahal izatea. Horrez gainera, gazteei aukera eman beharko zaie beren etxean bizitzeko. Funtsezkoa da gazteen eta, oro har, biztanle guztien beharrak asetzen dituen eskaintza lortzea etxebizitzari dagokionez. Horretarako, etxebizitzaren parke publikoa handitu behar da eta alokairu sozialak sustatu behar dira.

5.- Lan-merkatua erreformatzeko premiazko neurriei buruzko otsailaren 10eko 3/2012 Errege Lege Dekretua indargabetzea, mugatu egiten baitu gazteei bizimodu independenteari ekiteko aukera ematen dien kalitateko enplegua lortzea. Gainera, ezinbestekoa da bestelako ekimenak babestea gazteen laneratzea sustatzeko, hala nola autoenplegua edo ekintzaitza soziala, bereziki landa eremuetan, non lanerako aukerak are urriagoak baitira, baina enplegua sortzeko aukera ugari baitaude baliabide endogenoen ustiapenetik.

6.- Genero-indarkeriaren arloko informazioari eta baliabideei buruzko gazteentzako gida zabaltzen jarraitzea; emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko Iguala programa, emakume gazteak ahalduzko Impulso-Taupada programa eta Zibererasoei buruzko kanpaina lantzen jarraitzea.

7.- Ongizate Emozionalari buruzko Aholkularitza bat martxan jartzen dela bermatzea. Doako

zerbitzua izanen da, gazteei eta nerabeei laguntza pertsonalizatua emateko, une kritiko batean daudenean eta beren autoezagutza eta autorregulazio emozionala sendotzea eta beren buruenganako konfiantza berreskuratzea behar dutenean, laguntza hori ongizate pertsonala eta bizitza sozial pozgarriagoa lortzeko bidea baita.

